

Sarrera

Denboralditxo pasatu da jadanik Herrietako Euskara Elkartei Buruzko Jardunaldiak egin zirenetik Arrasaten. Bertara ekarritako ponentziak irakurgai dauden eran aurreko bi zenbakietan, bertan esandakoak ere grabatuta ditugu eta zinta horiek ere hor dira eskuragai aztertu nahi dituenik bada. Jardunaldien berriak izan zuen oihartzunik egin aurretik eta burutzen ari zirelarik; edonola ere, gerora, jardunaldietan aipaturiko "Normalkuntzaindia" izan zen aipagai ia bakarra eta bera ere ez oso luzaroan.

Jardunaldietan izandakoei iritzia eman zezaten inkesta bat igorri zitzaion eta jasotako erantzunen balantzea da Miren Arregik eta Jabier Ozaetak zenbaki honen lehen artikuluan dakarkigutena.

Zenbaki honen zatirik trinkoena, hala ere, beste nonbaitetik bideratu dugu. Bere momentuan hainbati eskatu genion ea ekarpenik egin ahal ziguten "Euskara eta euskal kultura gizarte integrazioarako bide" gaia geuk emanda. Bai, eskatzea erraza dela eta askori luzatu genien gonbitea, horrela jokotuta iritzi aniztasuna ziurtatu guran, eta zortzi izan dira jasotako ekarpenak, aniztasun horren islada modukoak neurri batean. Hor dituzu irakurgai, hurrenez hurren, Xabier Alegria, Joseba Arregi, Erramun Baxok

(Jazten 9. zk.) Xosé Estévez (gailegoz), Joxe Iriarte "Bikila", Emilio Lopez Adan "Beltza", Iñaki Larrañaga, eta Martin Ugaldere lanak. Besterik ezean, bihoazkizue eskerrak gure gonbiteari erantzuteko astia hartu ahal, hartu nahi izan duzelako.

Aipatu lagunen artikuluekin batera, gaiari beste saihets batzuetatik heltzen diotelako, interesgarriz jo dugu beste autore batzuren pasarteak ere lan orijinal hauen artean tartekatzea. Joxe Azurmendik eta Jose Mari Sanchez Carrionek dagokigun gaiaren harian idatzitako batzuk dira tartekatu ditugun horiek.

Eta tartekatze eta eskertze lanetan ari garela, bihoazkie eskerrak, halaber, Jose Agustin Arrieta, Jose Angel Irigaray, Joxeanton Artzeri eta Joxe Barriolari batetik, poemak igorri dizkigutelako; eta bestetik, Gabriel Celaya eta Bitorian Gandiagari, orriotan aurkituko dituzun poema benetan ederrak utzi dizkigutelako.

Jazten honetan aurkituko dituzunen berri eman ondoren, eta bukatu aurretik, zenbaki hau AEDren 10. urtemuga dela eta bildutako berri ematen duen laugarren zenbakia dela gogorarazi nahi dizugu.